


Bilboko Udaleko

Euskararen Erabilera

Normalizatzeko Plana

(2018-2022)



2018-2022 Plangintzaldia **Erabilera-plana**

Eragin-eremua

Udaleko organigrama osoa: **sail guztiak**

Udal erakundeek euren erabilera-planak egin behar dituzte.

Eragin-epea

Gobernu Batzordeak onartu eta biharamunean jarri zen indarrean eta 2022ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

2018-2022 Plangintzaldia **Erabilera-plana**

Xede nagusia

Bilboko Udalean hizkuntza ofizial biak parean egotea.

Berdintasun formaletik berdintasun egiazkorantz joatea.

Gidalerroak

1. Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Udalaren obligazioak
2. Borondatetik harago
3. Hizkuntza-prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia
4. Itzulpenen kudeaketa
5. Dokumentuen estandarizazioa
6. Kalitatezko komunikazioa
7. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak
8. Hizkuntzen kudeaketa
9. Erreferentzia Marko Estandarrarekin (EME) lerrokatua

1.- Herritarren hizkuntza-eskubideak eta Udalaren obligazioak

Udalak herritarrekiko obligazioak dauzka.

Udal langileek jardun behar dute herritarrek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.

2.- Borondatetik harago

Euskararen erabilera ez da langilearen borondatearen ondorio izango.

Erakundeak erabakiko du:

- nork hartuko duen parte planean,
- zer itzuli daitekeen eta zer ez...

Hizkuntza-eskakizuna derrigorrezko duen lanpostu batean aritzen den langilea prest egongo da bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko.

3.- Hizkuntza-prestakuntzaren eta trebakuntzaren garrantzia

- Langileek hizkuntza-prestakuntza jaso dute eta gehienek egiaztatu dute HE.
- 2009az geroztik martxan dago *Bilboko Udaleko Langileentzako Trebakuntza Programa*.

Helburua: eskainitako ikastaroetan motibazioa eta trebetasunak lantzea, langileak konfiantza handiagoarekin eta erosoago aritzeko lanean.

4.- Itzulpenen kudeaketa

Joera nagusia: testu gehienak gaztelaniaz sortu eta gero itzulpen-zerbitzura bidaltzea euskaratzera.

Itzulpenen kudeaketa: plangintzaldi honetan bideratu beharreko gaia.

5.- Dokumentuen estandarizazioa

Helburuak

- Udalaren zerbitzuaren kalitatea hobetzea eta eraginkortasuna handitzea.
- Itzulpenaren beharria murriztea.

6.- Kalitatezko komunikazioa

Kalitatezko komunikazio idatzia sustatu behar da Udalean: testu zuzenak, egokiak eta argiak.

2016ko maiatzean, *Bilboko Udalaren Irakurketa Errazeko I. Plana* (2017-2019) abiatu zen.

Irakurketa Erraza eta Erabilera Plana uztartu behar dira.

7.- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Plangintzaldi honetan Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak onartuko dira.

Irizpide horiek Udal osorako arau izango dira:
bete eta betearazi beharko dira.

Helburua:

Agintari, arduradun eta langile bakoitzak jakitea noiz, zer eta norekin egin behar duen euskaraz edo gaztelaniaz.

8. Hizkuntzen kudeaketa

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak ezarritako eredua.


Lider eta erakunde-ordezkarien konpromisoa,
arduradunen eta buruen inplikazio zuzena eta
langileen parte-hartze aktiboa eskatzen du.

Helburu nagusiak eta normalizazio ekintzak

Udala



**Bilboko Udalean
Euskararen Erabilera
Normalizatzeko Plana**



A ardatza: Zerbitzu-hizkuntza

- Herritarrekiko harremanak
- Erakundearen irudia

**9
normalizazio
ekintza**



B ardatza: Lan-hizkuntza

- Langileen kudeaketa
- Barne-harremanak
- Kudeaketa-sistema
- Kanpo-harremanak

**21
normalizazio
ekintza**

Euskara eguneroko funtzionamenduan txertatu nahi bada, **antolakuntza-egiturak** behar dira.

Erakundeari bere osotasunean eragitea:

- ✓ Hizkuntzen kudeaketa Udalaren kudeaketaren atala izatea.
- ✓ Erakundearen funtzionamenduan eta antolaketan txertatua izatea.
- ✓ BilbaoTIK aliatu izatea.

Udaleko sailetan hezurmamitzea:

- ✓ Plana kudeatzeko lan-atalak zehaztea.
- ✓ Euskara-koordinatzaileak izendatzea lan-ataletan.
- ✓ Euskara-taldea sortzea zuzendaritza bakoitzean.

Udal mailan Erabilera Plana indartzea


- Erabilera Plana Udalaren **proiektu estrategikoa** izan behar da.
- Giza Baliabideen Zuzendaritza, Kalitate eta Ebaluazio Kabinetea eta Alkatetza ere planaren gidari izan behar dira, Euskara Zuzendariordetzarekin batera.

Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria




- Alkatetza
- Kalitate eta Ebaluazio Kabinetea
- Giza Baliabideen Zuzendaritza
- Euskara eta Hezkuntza Saila

Euskaren Normalkuntza Batzordea (ENBA)



- Giza Baliabideen Zuzendaritza
- Euskara eta Hezkuntza Saila
- Sindikatuak

Euskara Taldeak



- Zuzendaritzetako arduradunak
- Euskara eta Hezkuntza Zuzendaritza
- Euskara koordinatzailea

Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria


- Hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arauak betetzen direla zaintzea.
- Hizkuntzen kudeaketaren gaineko proposamenak egitea.
- Erabilera Planaren jarraipena egitea.

Euskaren Normalkuntza Batzordea (ENBA)

Lanpostuei dagozkien arloak jorratu ohi dira:

- derrigortasun-datak
- hizkuntza-eskakizunak eta lanpostu hutsek edo/eta berriek eduki behar dituzten ezaugarriak

Zuzendaritza guztietan osatuko dira euskara taldeak.



Zeregina: kudeaketa-plana (urtekoa)

Dagokion zuzendaritzan hizkuntza ofizialak nola kudeatu behar diren lantzea, planifikatzea, gauzatzea eta jarraipena egitea.

ALKATEA

UDALBATZARREKO IDAZKARITZA NAGUSIA

01- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

02- GOBERNU BATZORDEAREN BULEGOA

03- UDALEKO KONTUHARTZAILETZA NAGUSIA

A1- KOMUNIKAZIO KABINETEA

A2- HARREMAN PUBLIKO ETA
INSTITUZIONALEKO KABINETEA

1 ALKATETZAREN KOORDINAZIOA

GOBERNANTZA ETA PROIEKTU
ESTRATEGIKOAK

ALKATETZA

GIZA BALIABIDEAK ANTOLATZEA
ETA KUDEATZEA

KONTRATAZIOA

OGASUNA

ZERGEN KUDEAKETA

AURREKONTUAK

EKONOMI GARAPEN,
MERKATARITZA ETA ENPLEGU
SAILA

HERRITARRENTZAKO ARRETA ETA
PARTAIDETZA

HERRITARREN ARRETA ETA PARTAIDETZAKO

KALITATE ETA EBALUAZIO KABINETEA

2 MUGIKORTASUNAREN,
INGURUMENAREN, HIRI
BERRONERATZEAREN ETA GARAPEN
OSASUNGARRIAREN POLITIKEN
KOORDINAZIOA

MUGIKORTASUNA ETA
JASANGARRITASUNA

ZUZENDARITZA

HIRI BERRONERATZEA

OSASUNA ETA KONTSUMOA

ZUZENDARITZA

ETXEBIZITZA

3 GIZARTE POLIKEN KOORDINAZIOA

GIZARTE EKINTZA

ZUZENDARITZA

LANKIDETZA, BIZIKIDETZA ETA JAIK

ZUZENDARITZA

BERDINTASUNA

4 HIRI GARAPENKO POLITIKEN
KOORDINAZIOA

OBRAK ETA HIRI PLANGINTZA

OBRAK

HIRI PLANGINTZA

ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA

ZUZENDARITZA

5 KULTUR POLITIKEN KOORDINAZIOA

KULTURA

ZUZENDARITZA

EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA

ZUZENDARITZA

GAZTERIA ETA KIROL SAILA

ZUZENDARITZA

6 HERRITARREN SEGURTASUNAREN
KOORDINAZIOA

HERRITARREN SEGURTASUNA

HERRITARREN SEGURTASUNA

BABES ZIBILA

25 EUSKARA-TALDE

Zuzendaritza guztietan **euskara-koordinatzaile bat** egongo da.

Zuzendaritza hauetan euskara-koordinatzaile **bat baino gehiago** izango dira:


- Giza Baliabideen Zuzendaritza (**3** euskara-koordinatzaile)
- Lankidetzak, Bizikidetzak eta Jaietako Zuzendaritza (**2** euskara-koordinatzaile)
- Kultura Zuzendaritza (**2** euskara-koordinatzaile)
- Udaltzaingoaren Zuzendaritza (**3** euskara-koordinatzaile)

Egitekoak

- Erabilera Plana lan egiten duen zuzendaritzan gauzatzea.
- Euskara teknikariekin lankidetzan aritzea.

Ezaugarriak

- Goi-mailako teknikaria izatea.
- HE egiaztatuta edukitzea.
- Zuzendaritzaren/zuzendariordetzaren guneetatik hurbil egotea.



1. Komunikazioa eta parte hartzea

Erabilera Planari zabalkundea ematea.

2. Normalizazioaren Jarraipenerako Batzorde Gidaria eratzea

Plana onartuta, Batzorde Gidariko kideak batu eta abian jartzea.


3. Euskara-koordinatzaileak izendatzea

Euskara-talde bakoitza osatu aurretik, euskara-koordinatzailearen izendapena egingo da.

4. Euskara-taldeak osatzea zuzendaritzetan

Arian-arian, 2019. eta 2021. urteen artean.

Euskara taldeak osatzea arian arian



Euskara-taldeak metodologiaren urratsak

Euskara-koordinatzaileak izendatu eta Euskara-taldeak osatuta, **urrats hauek** emango dira:

1. **Urtez urteko kudeaketa-plana diseinatzea:** urteko kudeaketa-plana diseinatuko du zuzendaritza bakoitzeko euskara-taldeak.
2. **Plana gauzatu eta kudeatzea:** zuzendaritza bakoitzeko euskara-taldeak plana gauzatu eta kudeatuko du euskara-koordinatzailearen laguntzaz.
3. **Planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea:** zuzendaritza bakoitzeko euskara-taldeak egingo du urteko kudeaketa-planaren jarraipena.

Urteko kudeaketa-planaren ebaluazioa

Ezarritako helburuen jarraipena egingo da urtero.

Zuzendaritza bakoitzaren ardura izango da ondo egindakoak eta zer hobetuak jasotzea.

Planaren amaierako ebaluazioa

Lan osatuagoa (datu kuantitatiboak eta kualitatiboak jasota) informazio-iturri hauexetan oinarrituta:

- zuzendaritza bakoitzeko arduradunek jaso beharreko datuak (errotulazioa, web-orria, aplikazioak, kontratuak, argitalpenak, jendaurreko ekitaldiak, erregistroak, ...)
- langileek aitortzen dituzten datuak.
- planaren zutabe diren langileen ikuspegiari buruzko datuak.